



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhoa Mindeguia Santesteban
Txomin Hualde Elizalde
Martxel Elizalde Elizalde
Pedro Hilario Santesteban Loyarte

2026ko maiatzaren 28an, 19:30tan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. - AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko Bilkuretako aktei. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez erabaki du**:

1.- Aurreko bilkurako aktak onartzea, 2026ko martxoaren 31 eta maiatzaren 4koa.

2. HERRIKO ETXEKO 2.SOLAIRUA EGOKITZEA HAINBAT ERABILERA GELA EGITEKO OBRAREN PROIEKTUAREN ESLEIPENA. PDR DIRULAGUNTZA.

2026ko martxoaren 31an ospaturiko osoko bilkuran, “*Herriko etxeko 2. solairua egokitzea hainbat erabilera gela egiteko*” obrak kontratatzeko espedientea onartu zen. Adjudikazio prozedurari hasiera eman zen eta lizitazioan parte hartzeko, bost enpresei gonbidapenak bidali zitzairen.

Lizitazioa, Nafarroako Plataforma Elektronikoaren Atarian (PLENA) argitaratu zen hilabeteko epea emanez. Enpresa bakar batek proposamena aurkeztu zuen. **2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei** buruzko 80.artikuluaren prozedura erraztua arautzen duen arabera, proposamen bakarra jaso zen eta, bi aldiz, epea luzatu zen.

Ez zen proposamen berririk jaso eta beste bi enpresei parte hartzeko gonbidapena bidali zen, epe berria zabalduz.

Zubietako udalaren idazkariak, 2026ko maiatzaren 26an 14:00tan, Dokumentazio Administrazio ireki zuen eta enpresa bakar bat aurkeztu zen. IM Arrixko Igeltseritza S.L.

Lizitaziora aurkeztu diren enpresaren dokumentazio administrazioa idazkariak akta aurkeztu du, hurrengoa onartua egonda:

- IM ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Zubietako udalak, 2026ko maiatzaren 27an 8:00tan, Kontratazio Mahaia bildu zen, Dokumentazio Ekonomikoa irekitzeko eta emaitzaren akta:

Nº	EMPRESA	Precio
1	I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA,S.L.	55.180,45€

Kontratazio Mahaiaren aktak ikusita, osoko bilkurari behin behineko proposamena aurkeztzen dio “*Herriko etxeko 2. solairua egokitzea hainbat erabilera gela egiteko*” obraren esleipena I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA,S.L enpresari egitea 55.180,45 eurotan, Bez gabe.

Kontratazio mahaiaren proposamena ikusirik, Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du:**

1. I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA,S.L. enpresari esleitzea *Herriko etxeko 2. solairua egokitzea hainbat erabilera gela egiteko*” obren kontratazioa, 55.180,45 €, (Bez gabe).
2. I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA,S.L enpresari emaiza jakinarazi eta pliegoen arabera 14 puntuan agertzen den dokumentazioa eskatzea.
3. Zubietako alkateari kontratua sinatzeko ahalmena ematea.
4. Akordioa interesatuari jakinarazi.

3.- GARBIKETA KONTRATUAREN ESLEIPENA

Udalburuak azaldu du, 2026ko martxoaren 31an egindako Osoko Bilkuran Garbiketa Kontratazioa bukatzen zela ikusita, kontrataziorako prozesua ireki zela 2026ko apirilaren 29arte. Sobre bakarra aurkeztu zen eta idazkariak ireki eta Lourdes Elizalde bere burua aurkeztu zuen. Gaia aztertu ondoren Udalbatzak aho batez **hurrengoa erabaki du:**

- 1.- Garbiketa kontratuaren esleipena Lourdes Elizalde andrearen alde egitea 2.200 eurotan.
- 2.- Esleipenaren kontratua sinatzeko Alkatea izendatzea Udal ordezkaria.
- 3.- Akordioa esleipendunari jakinaraztea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

4.-XEHETASUN AZTERLANA 4. POLIGONOKO 186. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Udalburuak azaldu du aipaturiko Xehetasun Azterlanari hasierako onespena eman ziola Zubietako 2026/29ko alkate ebazpenaren bidez 2026ko martxoaren 13koa; espedientea jendaurrean egon zen 2026ko martxoaren 26ko 61. NAO-n, inork alegaziorik aurkeztu ez zuelarik.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63. eta 74. artikuluekin bat etorritik, Udaltzatzen **erabaki du:**

1.- 4. poligonoko 186. lurzatiaren xehetasun azterlana behin betiko onestea.

2.- Akordio hau NAO-n argitaratzea Xehetasun azterlanaren testuarekin batera.

3.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

5.- ITURENGO MEDIKUAREN ETXEA

2026ko martxoaren 4an Elgorriaga, Ituren eta Zubietako udalak elkartu ziren Iturengo medikuaren etxeari buruz hitzegiteko. Bileraren akta bidaltzen denean puntu hau azalduko da.

6.- MOZIOA

Ez dago moziorik.

7.- ESKAERAK

7.1.- Raul Castro jaunak Zubietako Udal Plangintza Orokorraren Egurtegiko ordenantzaren 40.artikulua errebisatzea eskatzen du; zehazki, egurtegien aleroa 60 zentrimetrotik metro batera izatera aldatzea eskatzen du.

Puntu honetan, interes gatazkagatik AM zinegotzia bozketan ezin du parterik hartu. Gai aztertu ondoren, udalburuak bozkatzera deitu du eta Udaltzatzen hurrengoa erabaki du:

1.- Eskaera onartzearen aldekoak: 1 bozka.

2.- Eskaera onartzearen kontrakoak: 3 bozka. Ordenantza aldatetaren beharra ez da ikusten.

3.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

7.2.- Miren Izaskun Zubialde Grajirena andreak aipatzen du azken udan, herrian antolatutako udalekuen jardueren ondorioz zarata handiak sortu zirela. Horregatik, aurtengo udarako aurrekusita dauden kanpaldiak direla eta eskatzen du; 22:00etatik aurrera zarata sortzen duten jarduerak mugatzea edo etetea, bizilagunen atsedeneko eskubidea lehenestea jardueren antolaketa, zarata kontrolatzeko neurriak eta araudia betetzen dela bermatzeko, jarraipen mekanismoak ezartzea.

Gai aztertu ondoren, udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengo erabaki du:

1.- Aterpetxeko arduradunarekin bilera bat eskatuko da aipatutakoari buruz hitzegiteko.

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

7.3.- Ana Maria Hualde Indacoechea andreak, Zubietako udalari eskaera aurkezten du: Atxikitzen duen plano batean zehaztutako bidean (Amezti, Xapakoa, Ferminenea, Ikazpe eta Pentako borda alderdian), udalak materiala jartzea eta bizilagun batzuk auzolanean zabaltzeko eskeintza eginten du.

Zubietan herri bide asko daude konpontzeko eta lehentasuna ematen da, bizi bordara edo norbait bizi den etxeraino joaten den bideari. Udalak aukera ezberdinak baloratzen hasi da egoera hau arautzeko. Gaia aztertu ondoren, udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengo erabaki du:

1.- Kasu honetan eskaera ez da onartzen. Udalak bideak konpontzeko arauak ezarri nahi ditu eta horretan lanean dago.

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

8.-ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (30/2026- 53/2026 ebazpenak).



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

9.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da:

-Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduri egindako oihan aprobetxamendu eskaerak; Josefa Loyarte eta Juan Bautista Santesteban,;---Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamenduak emandako aprobetxamendu baimenak:Josefa Loyarte Elizalde—Jokoaren eta Ikuskizun Publikoaren Atalatik Txirrindularitza proba egingo dela esanez---Abeltzaintza zerbitzutik ebazpenak Inmaculada Gragirena andreak oiloak alta emanez---Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren informazioa Sagardiko iturriaren eskaerari buruzkoa---Nafar Gobernuako Ingurumen Departamenduko kontseilariarekin bilera bat egin zen saneatu gabeko betisuak mendian daudelako Axura eta Zugaramurdiko mendietan.

10.- GALDE-ESKAERAK

Ez dago galde-eskaerik.

Eta bertzerik ezean, 20:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

